


4. PLASTIKA ETA IKUS ADIERAZPENA



1. SARRERA

“Maitatzeko eta zerbitzatzeko herririk ez duen artista, herri umezurtz den artista, osatu gabeko artista izango nahi eta nahi ez” (Jorge Oteiza)


“Plastika eta Ikus adierazpena” alorrean, euskal curriculum espezifikorako konpetentziak proposatzerakoan, ikuspegi klasikoan oinarritutako arteak (pintura, eskultura eta arkitektura), baina baita ere eskulangintza-arteak, herri kulturaren elkargune gisa, eta multimedia eta kultura digital berriko adierazpenak ere (zinea, argazkigintza, publizitatea) besarkatzen ditugu.

Arteaz ari garenean kontzeptu zabal honen barruan haurren eta nerabeen identitateak egituratzeko orduan unibertso bisualak duen garrantziaz ari gara. Irudiekin egindako lanak garrantzi handia du gizakiaren identitatea eraikitzerakoan duen eraginagatik, eta baita ere, munduaren (errealitatearen) ikuspegia eraikitzerakoan. Arteak mundua ulertzeko ohikoak ez diren errejistroak landuz eta ikasleei pentsamendu era desberdinak azalduz hezkuntzari bere ekarpena egiten dio. Era berean, unibertso bisualarekin egindako lana oinarritzeko da; irudietan, inplizitoki edo esplizitoki agertzen diren baloreak aztertuz, bizi garen gizarte eta kulturarekin lotuak dauden hainbait gaitaz aritzeko, hala nola bazterkeriaz, kulturantzatasunaz eta aniztasunaren errespetuaz.

Arte hezkuntzak, beraz, errealitatea kontzienteki (kritikotasuna) ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematen ditu. Egungo errealitateaz gain, errealitate historikoaz eta etorkizunekoaz ere ari gara. Eta errealitate hori Euskal Herrian kokatzen dugunean, Euskal Herriko arteaz jardun behar dugu; identitate anitzez osatutako herriaren arteaz. Azken finean Euskal Herriko artearekiko definizioak edo mugak ezartzea ez da helburua gure herriaren artearekiko *sentsibilitate estetikoaren garapena bultzatzea baizik*.

“Artea” eta “Euskal” bi hitz hauek elkartzeak zentzurik ba ote du? Asko izan dira eta aspalditik galdera hori erantzuten saiatu direnak irizpide oso desberdinetan oinarrituz. Juan Plazaolaren irizpidea jarraituz⁹, Euskal Artearen esanahi baliokidea Euskal Herriko artea edo artea Euskal Herrian litzateke. Euskal Artea, gaur Euskal Herri deitzen diogunaren mugen barruan historikoki egiten edo kokatzen denari deitu diezaiokegu: Paleolito garaikoa, Erromatarren garaikoa, Erromanikoa, Gotikoa, Platereskoa... Euskal Herrian. Hala ere definizio horrek sortzen ditu zalantzak, izan ere, mendeetan zehar, lur hauetako mugak eta askok Euskal Herria deitzen diogun jende taldeak, beti berak ez direla izan kontuan hartzen bada.

⁹ PLAZAOLA, J. (2002): *Euskal Artearen historia. (Tomoak I; II, III, IV)*. Euskal Herri enblematikoa. Etor-Ostoa, Donostia



Aurreko irizpide geografikoarekin batera baliagarria deritzo, aipatu adituak, Euskal kultura eta identitatea ere irizpide modura onartzea, baldin eta ez badira mitifikatzen. Adibidez, Errenazimendua Euskal Herrian aztertzerakoan, Chueca Goitia arte gaietan adituaren hitzak jasotzen ditu: *“Baskoniaren benetako estiloa sakona da, oinarrizkoa eta jatorrizkoa da: paisaia baten, arraza baten eta gizarte baten barruan idatzia dago. Florenzian bezala ez da jeinu buru batzuen oinarri gainetan finkatzen. Ez da historia, izaera baizik”*. Hau da aditu honen ustez euskaldunek Errenazimenduko artean uzten duten beraien izaeraren arrasto propioa. Baina Euskal kultura eta identitatearen irizpidea hobeto egokitzen zaio Euskal artisautzari. Euskaldunen sormen plastikoa tradizionalki eguneroko bizimoduari loturik dago. Euskaldunen eraginkortasun plastikoa tradizionalki eguneroko bizitzarekin (eta heriotzarekin) loturik egon da. Bere artea ateburuak, hilarriak, kutxak, uztarriak, katiluak, argizaiolak, aldabak, sarrailak, gurutzeak, lantze horretan gauzatu da. Lan horietan Euskal senak berriazko arrastoak utzi ditu. Artea ulertzeko modu hau oso moderno da, izan ere gaur egun asko dira arteak bizitzarekin uztartu behar duela diotenak. Ikuspegi honetatik bizitzaren eta artearen mugak lausotzen dira. Artea *“zerorrek egin dezakezun guztia da”* diote.


Aurreko irizpide horiek arte plastikoarekin bereziki (pintura, eskultura, arkitektura) pentsatauz finkatu dira, baina baliagarriak dira ikus-entzunezko eta euskarri digitaleko (zinema, argazkigintza, publizitate...) artegintzan ere.

Aurkezten dugun proposamena lau gai-multzotan antolatzen dugu:

Euskal Herriko artearen adierazpen eta autore nagusiak

Arte-mintzaierek gizartearekin eta sortu zituen garaiarekin, bai eta artegileen baldintza berezi eta bizitzarekin lotuta daudela ulertzea, gizarte horren isla direla ulertzea. Euskal Herriko arte- sorkuntzak -artelanak- leku eta garai mugatu batean gizakiek zerbait komunikatzeko asmoz egindako jatorrizko emaitza gisa ulertu, aztertu, interpretatu, sistematizatu eta preziatzea nahi da.

Euskal Herriko arte paleolitikoa, klasikoa, Erdi Arokoa, XVetik XVIII. menderainoko artea eta, bereziki, azken mendeko arte garaikideak, eta bereziki inpresionismoaz geroztikoa sakontasun handiagoz jorratu beharko da, ikasleari bere garaiko artelanaren analisi, gogoeta, ulermen eta gozamenerako elementuak emateko.



Ikus-sistema berrien sorkuntza: zinea Euskal Herrian

XX. mendearen 20ko hamarkadan hasi zen zinemaren komertzializazioa eta hor kultura berri bat sortu zen, gaur egun ezinbesteko bihurtu zaiguna. Euskal Herriko zinemagintza gure kulturaren ikus- entzunezko adierazpenaren zati bat den heinean ezagutzea beharrezkoa da. Konpetentzi espezifiko hau bi norabidetan landu behar da: Alde batetik, behaketa jarrerak areagotuz, eta bestetik, irudien bidezko adierazpenerako sorkuntza bilakatzen lagunduz.

Artisautza: artearen eta herri kulturaren elkargune gisa

Euskal Herriko historia oso aberatsa da artisautzaren tradizioari dagokionez; antzinako eta ez hain aspaldiko aztarna ugari gordetzen ditugu, eta horiei esker hurbil gaitzke artisautza-mundu horretara, garai haietan egin ziren objektu eta sistema praktiko haiek ezagutzera.

Artisautza-iharduerak, plastika hezkuntza-sisteman ikasleak bereganatzen dituen hainbat ezagutza lortzeko eta praktikan aplikatzeko bide bat dira. Nolanahi ere, aukeratuko diren teknikak errazak izango dira, hau da, berehalako aplikazioa eta emaitzak eskainiko dituzte, baina, bestalde, adierazpen-ahalmen handikoak izango dira, ikasleak ikerketarako eta sorkuntzarako sena gara dezan. Adierazpen, sorkuntza eta berrikuntza-kontzeptuak artisautza-prozesu tradizionalekin garatu eta aplikatzeko aukera irekiz.

Museoak eta erakusketak


Artea eta gizartea lotzeko asmotan, XVIII. mendean garaiko botere publikoek museoak sortu zituzten, eta egun oraindik, museoen nortasuna asko aldatu bada ere, beraien hasierako eta lehenengo asmoa mantentzen dute. Artearen egoera orokorra neurtzeko orduan, adierazlerik hobenetakoa artearen eta gizartearen artean sortzen den harremana aztertzea bada, aukeretako bat museoen, arte zentroen, arte galerien eta erakusketa orokorren egoera aztertzea da. Ikuspegi honetatik Euskal Herriko arte eta artisten egoeraz, zeharka bada ere, aritzeko eta solasteko aukera ere emango digu



2. KOMPETENTZIA OROKORRAK

Oinarrizko Hezkuntza amaitzerakoan, ikasleek ondorengo bost konpetentzia orokorrak garatuko dituzte. Konpetentzia orokor horiek guztiak badute Euskal curriculum espezifikoarekin lotura, baina bereziki 5. konpetentzia orokorrarekin.

- 1.- Errealitatean, naturan nahiz artelanetan ageri diren elementu formalak identifikatzeko eta aztertzeke gai izan behar dute, balio estetikodun irizpideak lortzeko, kritikoak izateko eta beren lanei nahiz besteenei buruzko iritziak emateko eta horiek ikusiz gozatzeko.
- 2.- Oinarrizko esku trebetasunak menderatzeko gai izan behar dute, teknika plastikoak erabiltzeko eta buruan dituzten irudiak lan plastiko burutu izateko behar den trebetasuna lortzeko.
- 3.- Egungo gure kulturaren zati handi bat osatzen duten irudiei (argazkia, bideoa, anagramak...) buruzko egungo hizkuntzak irakurtzeko, balioesteko, kritikatzeko eta erabiltzeko gai izan behar dute, horien edertasun formalaz jabetzeko eta mezuaren edukia ulertzeko.
- 4.- Hizkuntza plastikoak (marraztea, margotzea, modelatzea...) eta horiei dagozkien teknikak ezagutu behar dituzte horiek askatasunez erabiltzeko moduan, errealitateari buruz dituzten sentimenduak, ideiak edota sentrazioak adierazteko eta besteei horiek komunikatzeko.
- 5.- Artearen historiako eta gaur egungo artearen estilo, artista eta lan nagusiak – unibertsalak nahiz Euskal Herrikoak– ezagutzeko gai izan behar dute, egungo kultura ulertzeko eta bertan integratuta sentitzeko, baita adierazpen plastikoen balioa gehiago balioesteko ere.



3. EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

1. EUSKAL HERRIKO ARTEAREN ADIERAZPEN ETA AUTORE NAGUSIAK	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>1.- Euskal Herriko Artearen estilo nagusietako arte adierazpen garrantzitsuenak bai eta artegile esanguratsuenak ere ezagutu, berezi eta aztertzea, denboran, espazioan eta testuinguru historikoan egokiro kokatuz, ondare kolektibo baten elementu gisa baloratuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Badaki zein diren Euskal Herriko artearen eta arkitekturaren adierazpenik eta autorerik adierazgarrienak. -Obrarik eta autorerik adierazgarrienak dagokien garaiarekin lotzen ditu -Garai bakoitzeko artelan eta arte mugimenduen ezaugarri bereizgarri adierazgarrienak deskribatzen ditu. -Euskal Herriko lanen eta autoreen ezaugarriak eta Mendebaldeko testuingurukoena lotzen ditu. -Euskal herriko arte adierazpenak balioesten ditu. -Euskal Herrian gaur egun sortzen den arte adierazpenarekiko interesa eta jakin mina azaltzen du eta bertze kulturetakoekin harremantzeko gai da.
Kontzeptuak	
<p>Artearen eta arkitekturaren autorerik eta adierazpenik adierazgarrienak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Paleolito garaiko artea : Haitzuloetako artea 2. Metalaren Aroko megalitismoaren garapena: Euskal Herriko geografia osoan zehar monumentu megalitiko ugari daude 3. Burdin Aroa: Kastroak eta gotorturiko herrixkak. Esanguratsuenak, La Hoya 4. Erromatar aztarnak: Veleia, Andelos, Oiasso, Banka, Baigorri eta Beskoitzeko meategiak... 5. Arte Erromanikoa. Santiago bidean zehar sakabanatua dago 6. Gotikoa: <i>Arte erlijiosoa:</i> Orreagako Kolegio-eliza, Baionako eliza... <i>Arkitektura zibila:</i> Iruñea eta Euskal Herriko Erdi Aroko hiriak eta gaztelu/gotorleku/dorre etxeak 7. Errenazimentua <i>Arte erlijiosoa</i> <i>Arkitektura zibila</i> <i>Eskultura:</i> Juan Antxieta <i>Baserriak:</i> Ainhua, Sara, Oharriz, Ipazter... 8. Barrokoa: <i>Arte erlijiosoa</i> <i>Arkitektura zibila:</i> <i>Eskultura:</i> Luis Salvador de Carmona, Juan Pascual de Mena <i>Pintura:</i> Ignacio de Iriarte, Martin Amigo 9. Neoklasizismoa. Erromantizismoa. <i>Arkitektura (zibila eta erlijiosoa) eta hirigintza Euskal Herrian.</i> 10. XX. mendea Euskal pintura, eskultura eta arkitektura. <i>Eskultura:</i> Francisco Durrio, Nemesio Mogrobojo, Julio Beobide, Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Nestor Basterretxea, Ricardo Ugarte, Remigio Mendiburu, Agustin Ibarrola, Andres Nagel, Txomin Badiola, Dora Salazar, Koldobika Jauregi... <i>Pintura:</i> Dario de Regoyos, Igacio Zuloaga, Manuel Losada, Aurelio Arteta, Gustavo de Maeztu, Antonio de Guezalaren, Nicolas de Lecuona, Francisco Iturrino, Rafael Ruiz Balerdi, Jose Luis Zumeta, Agustin Ibarrola, Jose Antonio Sistiaga, Vicente Ameztoy, eta gaur egungo artista ospetsuak: Jesus Mari Lazkano, Xabier Morras, Xabier Idoate... <i>Arkitektura:</i> Bizkaiko zubia "Zubi Esekia", Deustuko Unibertsitatea, Miarrizteko Udal Kasinoa, Arantzazuko 	




Andre Mariren Baseliza, Gasteizko Foruen Plaza, Bilboko Guggenheim Museoa, Donostiako Kursaal Erakusketa eta Batzarretarako jauregia, Bilboko Euskalduna Jauregia, Iruñeako "El Baluarte" Jauregia eta Auditorioa.

Prozedurak eta jarrerak

- Euskal Herriko obren, artisten, estiloen ezaugarriak globalki esplikatu ditzaten kontzeptuzko mapak, ardatz kronologikoak, koadroak edo eskemak egitea.
- Artearen Historiaren oinarriko terminoen glosategia egitea.
- Arteari buruzko ideien eta ikuskeren ahozko adierazpena, funtsezkoa eta begirunezkoa eztabaidetan edo elkarrizketetan egitea.
- Gure arte-ondarea ezagutu, gozatu eta baloratu; hori zaintzearen garrantziaz jabetu hurrengo belaunaldiei iristarazteko eta hondatu edo arriskuan jar dezaketen jokabideak baztertu.
- Euskal Herriko azken mendeko arte garaikideak, obra eta artista nabarmen batzuen azterketa-ekarpenik esanguratsuenak -obrei eta artistei dagokienez sakona egitea
- Berezi, gaur egungo eta inguruko ikus sistema berrien adierazpenen analisi eta gogoeta egitea, hauen ulermen eta gozamenarako. Dagokion estilo, mugimendu edo nazioarteko korronearen arabera saikapena eta konparaketa, antzekotasunak eta eraginak nabarmenduz, bai eta ezaugarri bereizgarriak ere.
- Gaur egungo hizkuntza estetiko berriei, adierazpen-formei, materialei, esanahiei eta funtzioei buruzko argudiatze arrazoitua eta kritikoa egitea.
- Euskal Herriko artearekiko sentikortasun artistikoa, atsegin estetiko eta kritikarako sena garatzea, artelan baten aurrean adierazpenak egin ahal izateko.

2. IKUS-SISTEMA BERRIEN SORKUNTZA: ZINEA EUSKAL HERRIAN

Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p>2.- Euskal Herrian sortutako zinema, euskaraz egindakoa eta Euskal Herriari buruzkoaren adibideak ezagutu eta aztertu, gure ondare kulturalaren jakitun izateko eta ikus entzunezko adierazpenaren interpretazioan eta sorkuntzan lagungarri izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herrian sortutako zinema, euskaraz egindakoa eta Euskal Herriari buruzko hainbat adibe ikuskatu eta aztertzen ditu. - Euskal Herrian sortu diren animazio filmerik ezagunenak ikuskatu ditu eta genero honek duen garrantzia balioesten du. - Euskal Herrian ospatzen diren zinemaldi nagusien oinarriko informazioa ezagutzen du. - Euskal filmategia zer den badaki. - Euskal Herriko zinemagintza interpretatzeko eta kritikoki izateko baliabideak eskuratu ditu. - Euskal Herriko zinemagintza hizkuntzagatik, kulturagatik eta egungo irudiaren mundura hurbiltzeko gaitasuna ematen duelako balioesten du eta berarekin gozatu egiten du
Kontzeptuak	
<p>Euskal Zinemagintzaren zenbait filme adierazgarri:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Amalur</i> (1968) dokumentala; - <i>La fuga de Segovia</i> (1981); Zine Politikoa - <i>La conquista de Albania</i> (1983); - <i>La muerte de Mikel</i> (1983); - <i>Tasio</i> (1984); - <i>Hamaseigarrean aidanez</i> (1985) - <i>27 horas</i> (1986); - <i>Lauaxeta</i> (1987); - <i>Tximeleta hegoak</i> (1991) 	



- *Behiak* (1992);
- *Piztiaren eguna* (1995)
- *Obaba* (2005)
- *Aupa Etxebeste*(2005)
- *La pelota vasca* (2006)
- *Kutsidazu bidea Ixabel*(2006)
- Euskarazko animazio filmak: euskal zinemaren adierazgarri
- Donostiako nazioarteko zinemaldia
- Biarritzeko nazioarteko zinemaldia
- Euskal Filmategia fundazioa

Prozedurak eta jarrerak

- Egin beharreko lanak, funtsean, bi motatako ardatzetan garatu beharra daude. Alde batetik, behaketa jarrerak aragotzea, eta bestetik, irudien bidezko adierazpenerako sorkuntza bilakatzen laguntzea.
- Filmak ikusi eta aztertu
- Garaia, testuingurua, irudia, mezua, generoa, estiloa, teknika....kontutan hartuz
- Bideo bidezko irudi grabazioaren bitartez ikus-entzunezko lan bat sortu
- Zinemaldiari buruzko informazioa bildu
- Euskaraz egiten den zinea balioetsi.
- Euskal Filmategia fundazioaren Euskal Herriko ikus entzunezkoen memoria gordetzeko eginkizuna balioetsi

3. ARTISAUTZA: ARTEAREN ETA HERRI KULTURAREN ELKARGUNE GISA

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>3.- Euskal Herriko artisautza-lan tradizionalak -ezagutu eta aztertu, jatorria, materiala eta forma kontuan izanik, eta estetikaren eta erabilgarritasunaren aldagaiak barne hartuz, ezagutza horiek plastika sorkuntza lanetan erabili ahal izateko, aberastu eta osatzeko eta arte-sorkuntzaren izaera globala eta disziplinarterkoa baloratzeko bide gisa duten balioetaz jabetu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko artisautza tradizioa identifikatzen du eta artisautza-produktuak kultur ondare gisa balioesten ditu. - Artisautzarako erabilitako naturako materialen, formen, testuren eta koloreen aberastasuna eta aniztasuna behatu eta balioesten du - Artisautzan erabiltzen diren hainbat erreminta eta tresna ezagutzen ditu - Adierazpen, sorkuntza eta berrikuntza-kontzeptuak artisautza-prozesuan aplikatzen ditu. - Artisautza-objektuak eginez eskulanetarako trebetasunak erabili eta garatzen du - Erabakiak hartzean eta arazoei irtenbideak bilatzean autonomiaz, ekimenez eta konfiantzaz jokatzeko du.
Kontzeptuak	
<p>Euskal Herriko artisautza tradizionala:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Harría artisautza: Hilarriak - Zura artisautza: Sukaldeko tresnak, kaiku, abatsa, taloaske, ezpelaz egindakoak, egurrezko goilarak, argizaiola. Saskigintza (gaztaina, zumea..), altzari tradizionalak, kutxak - Larrua artisautza: abarkak, zagiak, zatoak - Metal artisautza: Forja artistikoa, damaskinatua - Buztina artisautza: zeramika - Ehuna artisautza <p>Euskal Herriko musika tresnekin lotutako artisautza</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kirrikak, firringala, txalaparta, txistua.... 	
Prozedurak eta jarrerak	



- Euskal Herriko artisautza-lanaren jatorria, aztertzea, artisautzei buruz dokumentuetan oinarritutako ikerlanak eginez eta ahozko, idatzizko eta irudizko informazioak aplikatuz.
- Ikerketarako informazioa bilatu eta biltzea, liburutegi, museo, erakusketa eta. beste zenbait zentrotan.
- Herriko edo eskualdeko artisau bati buruzko ikerkuntza-lantxo baten ondorioak aurkeztea, euskarri desberdinak erabiliz (bideoa, diaporama, murala, hormirudia,...).
- Gaur egun dauden ekipamendu didaktiko desberdinak ezagutzea, horien bidez Euskal Herriko historian zehar garatutako artisautza-ofizio eta iharduera batzuen errealitatera hurbildu ahal izango baikara (San Telmo Museoa, Untzi Museoa, Elosuko Buztingintza Museoa, etab.).
- Euskal artisautzak sortu dituen hainbat objektu aztertzea: . Ezaugarri fisikoak(artisautza-objektua osatzen duten materialen egitura eta ezaugarriak, aplikazioaren arabera); . Ezaugarri funtzionalak(objektuak sortzera bultzatu zuten beharrak eta belaunaldietan zehar izan duten bilakaera); Objektu funtzionalen kualitate estetikoak, sinbolikoak eta sozialak.
- Euskal Herriko artisautzan oinarrituz artisautza objektuak erakitzea.
- Gure inguruneko natur baliabideak aprobetxatuz eta errespetatuz, arte sorkuntzarako baliabide gisa balioestea
- Euskal Herriko ondare kulturala, historiko eta artistikoa ezagutu eta errespetatzea.
- Artisautza euskal kulturaren adierazgarri eta identitate gisa baloratzea

4.MUSEOAK ETA ERAKUSKETAK	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>4.- Euskal Herriko interesik eta esanahirik handieneko museo eta erakusketak ezagutu, aztertu eta gozatzea. Ahal denean irtenaldi, bisitaldi eta ibilbide artistikoen bidez eta zuzeneko behaketaz baliatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko museo nagusiak eta erakusketetako artelan nagusiak ikusi eta aztertu ditu. - Ikusi eta aztertutako artelanek zein kalitate estetiko duten eta horien aurrean sentimenduak adierazteko gai da. - Ondare artistikoarekiko errespetuzko jarrera azaltzen du eta zaindu, babestu eta ondorengo belaunaldiei igorri behar den ondasuntzat hartzen ditu.
Kontzeptuak	
<ul style="list-style-type: none"> - Bilboko Guggenheim eta Arte Ederretako Museoa - Vitoria-Gesteizko Artium - Donostiako San Telmo Museoa, Chillida-Leku - Nafarroako Museoa - Oteizaren Etxe Museoa (Altuza) - Baionako Euskal Museoa - Beste zenbait museo eta erakusketa-areto (Eskualdekoak, herrikoak...) - Galeriak 	
Prozedurak eta jarrerak	
<ul style="list-style-type: none"> - Museo eta erakusketetara egindako irtenaldi planifikatuetan zenbait artelanen zuzeneko behaketak eta analisiak. - Museo eta erakusketeei buruzko informazio bilketa. - Bertako erakusketa eta galeriek Euskal Herriko artelanak eta artistak ezagutzeko ematen duten aukera balioestea 	